



PROGRAMA PLAZAOLA ZIKLOTUR 2026



PLAZAOLA ZIKLOTUR 2026 PROGRAMA

1. Sarrera

Partzuergo honek metatutako esperientzia, Plazaola Ziklotur programaren (2024 eta 2025) ebaluazioa eta berariazko lan-taldean egindako lanketa oinarri hartuta, 2026rako programa **urte osoko eredu baterantz** garatzea planteatzen da, bizikleta mugikortasun jasangarriaren, jarduera turistikoaren eta lurralde-kohesioaren ardatz nagusi gisa sendotzeko.

Plazaola Ziklotur 2026 programa ireki, askotariko eta orekatu gisa ulertzen da, bai bertako herritarren bai bisitarien beharrei erantzuteko gai izango dena, eta bizikletaren erabilera, modalitate eta profil desberdinak integratuko dituen.

ildo horretan, programa honen baitan 2024an egin zen ekimen bat berreskuratu nahi dugu, hain zuzen ere bide berdeko azken zatia inauguratu berritan antolatutako Iruñetik abiatzen zen Plazaola martxa zikloturista.

2. Helburu nagusia

Plazaola Ziklotur bizikletarekin lotutako urte osoko jarduera-programa bihurtzea, mugikortasun jasangarria, lurraldearen gozamina eta parte-hartze soziala sustatuz, ingurunearekiko errespetuzko harremana eta Plazaola lurralde osoan jardueren banaketa orekatua bultzatuz.

3. Helburu espezifikoak

- Programaren iraupena zabaltzea, hilabete bakarrean kontzentratutako egitarau batetik urte osoan banatutako egutegi batera igaroz.
- Jardueren programazioan lurralde-oreka lortzea, Plazaola eremuko udalerrri guztien parte-hartzea sustatuz.
- Bizikleta-modalitate desberdinak kontuan hartuko dituen eskaintza askotarikoa diseinatzea: BTT, gravel, errepidea, enduroa, bizikleta elektrikoak eta proposamen irisgarriak.



- Publiko anitzengana iristea, hurrei, familiei, helduei, seniorrei eta profil teknikoagoei zuzendutako jarduerak barne hartuz.
- Mugikortasun jasangarria sustatzea, bai ikuspegi turistikoan bai bertako herritarrek bizikleta egunerokoan erabiltzeko ohituretan.
- Udalen, tokiko erakundeen, klubien eta lurraldeko eragileen arteko lankidetzak sustatzea.

4. Programaren ikuspegia

Plazaola Ziklotur 2026 honako ezaugarri hauek dituen programa izango da:

- Urte osokoa, urtaroetan banatutako jarduerekin.
- Malgua, udalerrien interesera eta antolaketa-gaitasunera egokitua.
- Lankidetzazkoa, udal eta tokiko eragileen inplikazioan oinarritua.
- Inklusiboa, proposamen irisgarriak integratuz eta kolektibo desberdinen parte-hartzea sustatuz.
- Jasangarria, mugikortasun arduratsuaren eta ingurunearekiko errespetuaren balioekin bat datorrena.

5. Udalekiko lankidetzak

Programaren behin betiko definizioak udalerrien interesa eta inplikazio-maila ezagutzeko du, bai dagoeneko proposatutako jarduerak hartzeko, bai bizikletarekin lotutako ekimen propioak txertatzeko.

Dokumentu hau eta jarraian aurkezten den egutegia lan-oinarri gisa planteatzen dira, ekarpen, egokitzapen eta proposamen osagarrietara irekita.

6. Jardueren behin-behineko egutegia · Plazaola Ziklotur 2026

Ondoko taulak Plazaola Ziklotur 2026 programaren jardueren aurreikuspen eguneratua jasotzen du.

Egutegi honek behin-behineko izaera du, eta udalerrien interesaren, inplikazioaren eta antolaketa-baldintzen arabera egokitu ahal izango da.



EKITALDIEN EGUTEGIA

Hilabetea / Data	Jardueraren izena	Bizikleta-modalitatea	Publiko hartzailea	Lekua	Oharrak
Martxoak 14	Txikipest Enduro	Enduro	Erabiltzaile aurreratuak	Leitza	Proba teknikoa
Apirilak 7	Itzulia	Errepidea	Publiko orokorra	Mendukilo ingurua	Naturalingurunearekin lotua
Maiatzak 9	La Peluso	Errepidea	Helduak	Irurtzun	Martxa zikloturista
Maiatzak 31	Basaburua BTT Martxa	BTT	Helduak	Basaburua	Lurralde-oreka
Ekainak 20	Plazaola Martxa	Errepidea / Hibridoak	Publiko orokorra	Iruña – Lekunberri	Irteera puntu desberdinak
Uztailak 4	Goizueta MTB	BTT	Helduak	Goizueta	Tokiko proba
Iraila (1. hamabostaldia)	Alforjekin ibilbidea (4–5 egun)	Gravel / Touring	Esperientzia dun publikoa	Proiektu pilotua	Esperientzia zikloturista
Irailak 14–20	Mugikortasunaren Astea	Jarduerak	Herritarrak	Lurralde osoa	Sentsibilizazioa
Irailak 20 (Mugikortasunaren Astea)	Maratoi erdia	Errepidea	Helduak	Leitza–Lekunberri	Korrikalari publikoa
Irailak 26–27	Leitzulia	Errepidea	Helduak	Leitza	Ekitaldi nagusia
Urriak 16–17	Hirumuga Enduro	Enduro	Erabiltzaile aurreratuak	Lekunberri	Denboraldi amaiera



7. Azken gogoetak

Proposatutako egutegiak aukera ematen du:

- Urte osoan jarduera zikloturista bermatzeko.
- Bizikletaren erabilera-modalitate eta profil desberdinak ordezkatzeko.
- Lurralde mailan programazio orekatua sustatzeko.
- Mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna zeharkako ardatz gisa txertatzeko.

Plazaola Ziklotur 2026 programaren behin betiko definizioa udal eta inplikaturako eragileen lankidetzarekin gauzatuko da.